

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Pertsonei bizikletan ibiltzeko aukera ematean, bizimodu aktibo eta osasungarria sustatzeaz gain, energia garbia ere sortzen dugu jarduera horretatik abiatuta.

Alde batetik, gure bezero nagusiak energia-enpresak dira. Guk, energia lortzean energia-enpresei saltzen diegu, diruaren truke. Enpresa hauek gure eskualdekoak izan beharko dira gure udalerriari laguntzeko.

Beste aldetik, esan dezakegu gure bizikletetan ibiltzen diren pertsonak ere bezeroak direla, izan ere, gure zerbitzuen erabilera egiten dute eta parte hartzeagatik saria jasotzen dute beraien beharren araberakoa izango dena. Bezero hauek baliabide gutxikoak, jarrera onekoak, aktiboak eta gutxienez 16 urte eduki behar dituzte. Bestalde, ikasketak edukitzea ez da beharrezkoa.